



HEZKUNTZA PROIEKTUA



Uzturpe Ikastola
Egialde 2, 20400 Ibarra
Tel. 943 671299 (EGI)
Tel. 943 536609 (EMETERIO ARRESE)
e-posta ibarra@ikastola.eus
www.uzturpe.eus

SARRERA

Hezkuntza Proiektua ikastolaren bizitza gidatzen duen tresna da. Ikastolan egiten den guztiak proiektuan jasotzen diren asmoei erantzungo die. Hezkuntza proiektuaren funtzio edo eginkizun nagusiak honakoak dira:

- Ikastolak dituen hezkuntza asmoak zehaztea.
- Pedagogia praktika gidatzea eta orientatzea.
- Haur eta gazteen hezkuntzan eragile guztion koherentziarako hizpide izatea.

Proiektu hau hezkuntzako esku-hartze prozesua koherentziaz zuzentzea ahalbideratzen duen proposamen integrala da.

Hezkuntza Proiektua aurrera eraman ahal izateko hezkuntza komunitateko kideen (ikastolako guraso, ikasle, irakasle eta beste langileak) iritzi eta esperientzian oinarritzen da.

Azkenean, Hezkuntza Proiektuak "bizitza filosofia" baten isla izan behar du. Bizitza ulertzeko modu bat. Norberari eta besteekin batera zorientasuna eta benetako ongizatea lortzera eramango dion filosofia.

Atal hauek osatzen dute gure Hezkuntza Proiektua:

1. Ikasleen irteera profila.
2. Nortasuna eta ezaugarriak. Ikastolaren izaera.
3. Printzipio orokorrak
 - Denentzako eskola
 - Pertsona eta gizarte eredu
 - Euskal eskola
 - Etengabeko hobekuntza
4. Zeregina, Ikusmira eta Balioak
5. Estrategi plana
6. Funtzionamendu organoak
 - Batzar orokorra
 - Errektore kontseilua
 - Geletako guraso ordezkariak
 - Zuzendaritza taldea
 - Klaustroa

1. IKASLEEN IRTEERA PROFILA

Ibarrako Uzturpe ikastolan, hezkuntza ibilbidea bukatzean ikasleek ondorengo ezaugarriak eskura ditzaten lan egiten dugu.



EUSKALDUN ETA ELEANITZA	Euskaldun eleanitza izatea, euskararen eta euskal kulturaren ezagutza oinarritzat hartuz eta beste hizkuntzen ulermena eta adierazmena bermatuz, ahoz zein idatziz, euskaldun aktibo izateko eta hizkuntza egoera ezberdinetara egokitu ahal izateko.
ZORIONTSUA	Norbere barnean poz, alaitasun, gozamen, lasaitasun eta maitasun-egoeran sentitzea, bizitzari modu baikorrean aurre eginez, bakoitza den bezala onartuz, maitatuz eta garatzeko aukera balioetsiz, oreka emozionala bermatzeko.
ANIZTASUNA ERRESPETATZEN DUENA	Elkarrekin errespetuz bizitzen ikastea, helburu komuneko eginkizunetan lankidetzan arituz, pertsonen eta iritzien aniztasunak dakarren aberastasuna aitortuz eta sortzen diren gatazkak elkarriketa eta negoziazio bidez kudeatuz, guztion ongizatea bermatzeko.
NORBERE BURUAREN JABE	Emozio eta jarreraren kontrola izatea, emozioak identifikatuz eta egoki kudeatuz, ondorioz sor litezkeen erreakzioak erregulatuz eta egoera ezberdinetan jarrera egokia izanaz, norberaren eta taldearen ongizatea bilatzeko.
AUTONOMOA	Norbere indargunez eta ahulgunez kontzientea izanik bere buruarekin ziur sentitzea eta dituen gaitasunetan konfiantza izatea, erronka eta ardura berriei aurre eginez, maila pertsonal nahiz sozialean oreka eta bizitza kalitatea aurkitzeko.
KRITIKOA	Pertsona kritikoa izatea, informazio, pentsamendu eta

	sentimendu ororen aurrean iritzi propio arrazoitua adieraziz, ondorio arrazionalera heltzeko eta gizarteko kide aktibo izateko.
EKINTZAILEA: SORTZAILEA ETA ERALDATZAILEA	Iniziatibaz eta iraunkortasunez bakarka nahiz taldean aritzea ideiak eta proiektuak planifikatuz, sortuz, prozedura zientifikoak erabiliz eta ebaluatuz, kalitatea, baliagarritasuna eta teknologia balioetsiz ingurune hurbilean nahiz gizartean eragile aktiboa eta konprometitua izateko.
ENPATIKOA	Besteen lekuan jartzeko gaitasuna izatea, gainontzekoen ikuspuntua eta haiengan errotutako sentimenduak ulertuz, eta norbere ekintzen ondorioez jabetuz, ingurukoekin harreman orekatu, eraikitzaile eta harmoniatsuak izateko.
KOMUNIKATZAILEA	Testuingurura egokituz informazioa, azalpenak eta bere sentimenduak modu asertiboan transmititzeko ahalmena izatea, ahoz, idatziz, gorputz adierazmenaz eta digitalki, adierazi nahi duena modu eraginkorrean besteengana iristeko.
INGURUMENAREKIKO ARDURATSUA	Ingurumenarekiko erantzukizuna eta errespetua izatea, iraunkorrak diren jarrera eta ekintzen onurak ezagutzuz, eta hauek aurrera eramateko ekimenak eta estrategiak bultzatuz, egungo eta etorkizuneko belaunaldien ongizatea bermatzeko.
BIZI OHITURA OSASUNGARRIAK DITUENA	Bizi ohiturek izan ditzaketen eraginak ezagutzea eta baloratzea, kirol edo jarduera fisikoa praktikatuz, dieta orekatua eta higiene ohitura egokiak garatuz, kalitatezko bizimodu osasungarria izateko.
ETORKIZUNEKO IKASKETETARA EGOKITZEN DAKIENA	Etorkizuneko ikasketetara egokitu ahal izango den ikaslea izatea, ikasketa prozesuaren jabe izanaz, lan nahiz ikasketa ohitura egokiak barneratuz eta norberaren gaitasunen garapen gorena bultzatuz, etorkizuneko egoera berriei egokitu ahal izateko.

2.NORTASUNA ETA EZAUGARRIAK

Ikastolaren Izaera

- Uzturpe ikastola proiektua 1970. urtean sortu zen eta, harrez gero, ibartarrak hezten dihardugu gogo biziz. **Uzturpe ikastola Irakaskuntza Kooperatiba Elkarte** da 2004. urtez geroztik, guraso kooperatiba da eta langileak bazkide laguntzaileak dira. Bere berariazko nortasun juridikoa duen eskola-erakundea da, euskal gizarteak hezkuntzan jarriak dituen ideien eta itxaropenen adierazpenetako bat, gizarte-titularitatea duena, irabazi-asmorik gabea eta ekimen herritarraren fruitu dena.
- Uzturpe ikastola, ikasleek, gurasoek eta langileek osatutako hezkuntza-komunitatea da, **elkarlan bidez kudeatutako antolakuntza**.
- Ikastola hezkuntza **erakunde euskalduna** izanik, euskara da bertako hizkuntza ofiziala eta euskara izango da bertako kideen arteko harremanetarako hizkuntza. Era berean, herrian euskara eta kultura sustatzen laguntzeko ardura hartzen dugu. Hori guztia **Hizkuntza Proiektuaren** barruan kokatzen dugu.
- Uzturpe ikastola, berak jarduten duen **gizarte, kultura eta ekonomia ingurunean kokatu eta txertatutako erakundea da**. Herriko beste eragileekin elkarreragineko ekintzen bidez, ikastola-herri arteko harremana aberasten du, ikastola herri horretako partaide bihurtuz eta aldi berean, herri hori ikastolako partaide eginez.
- Hezkuntza konpetentzia orokorrak lortzeko **ardura, irakasleen, hezitzaileen, gurasoen eta ikasleen arteko elkarlan** partekatua da.
- Uzturpe ikastolako **irakasleriak eta hezitzaileek**, hezkuntza maila eta curriculum esparru guztietan, hezkuntza konpetentzia orokorrak bere irakasle eginkizunetan txertatuko ditu **oinarrizko konpetentziak erdiesteko** asmoz.
- Uzturpe ikastolak, **Ikastolen Elkarteak antolakuntza egiturarentzat proposatzen dituen printzipioak** baliozkotzat jotzen ditu eta geure Hezkuntza Proiektuan txertatzen ditu. Ikastolen kolektiboarekiko **elkartasuna** bultzatzen du eta Euskal Herriko ikastolen sarea garatzeko eta bertako partaide eraginkor izateko konpromezua hartzen du.
- Hezkuntza Proiektu hau **hezkuntza-komunitateak onetsi eta eguneratuko** duen proiektua izango da, ikasleek, beren familiek eta langileek, onartuak dituzten gobernu eta funtzionamendu-organoen bitartez, bere garapenean parte hartuz.

3. PRINTZIPIO OROKORRAK

Denentzako eskola

- **Konpromiso politiko, erlijioso eta sozialari buruz aukera guztiak errespetatzen ditugu.** Era berean, uste dugu Ikastolak hezkuntza erakunde gisa arlo politikoan eta erlijiosoan ezin dezakela inongo sentsibilitateren aldeko zein aurkako jarrerarik adierazi.
- Uzturpe Ikastola **beste kulturei irekia** da, kultur artekotasunezko hezkuntza planteamenduak eginez eta gauzatuz. Denentzako izango den **eskola inklusibo** eta anitzarekin identifikatzen da; jatorri, gizarte maila nahiz ekonomia maila desberdinetako pertsonentzat irekia da; **aukera berdintasuna** ziurtatzeko ahalegina egiten du. Bertan dabilzan ikasleek, Euskal Herrian eta Europan txertatuta nahiz munduarekin harremanetan egongo den euskal gizartean bizitzen jakin dezaten.

Pertsona eta gizarte eredia

- Uzturpe ikastolak bere egiten du hezkuntza jardunbidearen helburua, gizakiaren kompetentziak mailarik handienera garatzeko, eta ikasleei lagunduko die: **norbanako subjektu gisa, gizarteko kide edo partaide gisa eta naturako partaide gisa**, beren gaitasunak maila horretan gara ditzaten.
- Gure heziketa ekin bidearen helburua ikaslearen heziketa integrala lortzea denez, garapen intelektualarekin batera pertsonaren dimentsio afektiboa, soziala eta sensoriomotorra izango ditugu kontutan. Xede hori lortzeko **oinarrizko kompetentzia** hauek garatuko ditugu:
 - **Pentsatzen eta ikasten ikasi**
 - **Komunikatzen ikasi**
 - **Elkarrekin bizitzen ikasi**
 - **Norbera izaten ikasi**
 - **Egiten eta ekiten ikasi**
- Ikasketetan saiatzea, seriotasuna, ikaste teknikak eta ohiturak, azken batean **eguneroko lana bultzatzen da**; horregatik ebaluaketarako irizpide nagusia den errendimendu maila, ikaslea saiatu denarekin osatzen da.

- Uzturpe ikastolak oinarrizko heziketa eta bizitza osorako prestakuntzaren oinarriak finkatuko ditu, **pertsonaren garapen osoa zainduz**, ikasleak gai izan daitezen beste prestakuntza maila batzuetarako eta lan mundurako sarbideak irekitzeko, bere bizitza zentzuz bideratzeko eta bere **etorkizuna arduraz hautatzeko**.
- Uzturpe ikastolak, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko hezkuntzako elkarbizitzaren eredu baten oinarri gisa, **eskubideetan parekidetasuna lagunduko duten jarrerak eta portaerak** bultzatuko ditu.

Euskal eskola

- Uzturpe ikastolak, **euskal hizkuntza eta kultura ardatz** moduan hartuta, **hizkuntzen eta kulturen ikuspegi integratzailea** eragiten du eta hizkuntza eta kultura konpetentziak osagarritasun ikuspegiarekin ulertzen ditu.
- Uzturpe ikastolak, **Euskararen Lurralde gisa hartzen du Euskal Herria**, espazio unibertsalera irekia, lehendik definitutako baina etengabe berritzen eta aberasten ari diren hizkuntza eta kultura berezitueta oinarritutako lurraldea.
- Uzturpe Ikastolak, Euskal Herri izena, Euskaltzaindiak 2003. urteaz geroztik erabiltzen duen zentzu berean erabiltzen du, hots, Arabak, Bizkaiak, Gipuzkoak, Lapurdik, Nafarroak (Behereak eta Garaiak) eta Zuberoak osatzen duten lurralde-multzoa identifikatzeko.
- Uzturpe Ikastola, ikastolen kolektiboak duen izaera herritarra dela bide, **subjektu eraginkor eta lankide da**. Euskal Herria eta bere hezkuntza-sistema, hizkuntza eta kultura garatzeko, beste gizarte, hezkuntza eta kultura eragile batzuekin batera jarduten du.

Etengabeko hobekuntza

- Uzturpe Ikastolak honako egitura duen hezkuntza sarearen aukera egiten du: etengabe aldatzen ari den munduan era jarraian ikasi eta berritzeko gai izango dena eta aldaketarako, **berrikuntzarako eta etengabeko hobekuntzarako prestatua** dagoena.
- Bide honetan, Uzturpe Ikastolak 1996. urtean, EFQM Kalitatearen eredu (European Foundation Quality Management) hautatu zuen kalitatearen kudeaketa lantzeko. Eredu honen balore eta printzipioekin bat egiten du, eta eguneroko praktikan printzipio hauek uztartzeko konpromisoa hartzen du. Horrela lan eginez, **2004. urtean "Zilarrezko Q" saria jaso zuen ikastolak.**
- 2017-2018 ikasturtean Uzturpe Ikastolak, **HPI (Hobekuntza Pedagogiko Iraunkorra)** proiektua jarri du martxan, Ikastolen Elkartearen eta Escalae institutuarekin elkarlanean. Ikasleen ikaskuntzetan aurrerapausoak eragiteko, irakaskuntza jardunetan hobekuntzak inplementatzen laguntzea helburu izanik, ikastola bere osotasunean hartzen duen prozesua abiatu dugu.

4. ZEREGINA, IKUSMIRA ETA BALIOAK.

Zeregina:

Uzturpe Ikastola Ibarako ikastetxe bakarra izanik, guraso, langile (dozente eta ez dozente), herriko talde eta erakundeekin batera lana eginez, 2 urtetik 16 urte bitarteko ikasleen kalitatezko heziketa euskalduna, integrala eta etorkizunera egokitua lantzen du.

Ikusmira:

Erreferentziazko ikastetxea izatera iritsi nahi dugu Ibaraldean.

- **Ikasle, guraso eta langileen gaitasunak garatuz.**
- **Elkarbizitza landuz.**
- **Euskal kultura bultzatuz, euskara, musika eta kirola**
- **Ingurumena zainduz.**
- **Bideragarritasun ekonomikoa lortuz.**

Balioak:


- **Partaidetza:** Ikastetxeko kudeaketa eta funtzionamendua partehartzaile eta demokratikoa da eta kideen arteko komunikazioan oinarrituta.
- **Komunikazioa:** Familia da guretzat elementu garrantzitsua. Berarekin dugun harremana zaintzen dugu eta bertatik datozen iritziak kontutan izaten ditugu.
- **Etorkizunera egokituta:** Ikasleen alderdi akademikoa etorkizuneko gizarteak eskatuko dituen beharretara egokitzen dugu.
- **Gertutasuna:** Ikasleek dituzten zailtasunei arreta berezia eskaintzen diegu, bakarkako jarraipena eginez.
- **Bizikidetza:** Elkarbizitzarako estrategiak lantzen ditugu eta egunerokoan aplikatzen ditugu.

- **Elkarlana eta saiakera:** Hezkuntza kalitatea hobetzarren baliagarriak diren berrikuntza didaktiko eta teknologikoak ikasiz eta ikastolako langileok elkarlanean aplikatuz.
- **Lankidetzatza:** Gizarte eragileekin elkarlanean jarduten dugu.
- **Formazioarekin konprometzua:** Langile, ikasle ohi, guraso eta aiton-amonon formazioa ahalbidetuz.
- **Ingurumenarekiko errespetua:** Ingurumenaren ezagutza, errespetua eta babeserako lan egiteko erronkari ekin diogu.
- **Kooperazioa:** Gizartean beharra dutenekin konprometitzen gara.

5. ESTRATEGI PLANA

Ikasturtero, gure nortasunaren oinarriak, printzipio eta balioek gidatzen dute gure strategi plana. Bertan jasotzen dira:

Gure lan ildoak:



EMOZIONALA

- **Ikaslearen ongizatea bermatu, bere ikaskuntza prozesuan aurrera egin dezan.**
- **Emozio positiboetan oinarritutako ikaskuntza eman.**
- **Komunitate osoaren oreka emozionala zaindu.**



SOZIALA

- **Ikasleari elkarrekintzarako aukerak eskaini.**
- **Elkarbizitza osasuntsu bat ahalbidetu: ikasleari eguneroko bizitzan sortzen zaizkion egoerei aurre egiteko trebetasun sozialak eskaini, balore eta jarrerak landuz.**
- **Denontzako ikastola: ikasle guztien integrazioa ahalbidetu.**
- **Gure proiektua komunitate osora zabaldu, eragile guztiak proiektuaren parte aktibo bilakatuz.**
- **Inguruko gizarte eragileekin elkarlana bideratu ikaslea gizarte horretako kide aktiboa izaten ikasteko.**



KOGNITIBOA

- Ikaskuntza esanguratsua ahalbidetu: zertarakoa, esperimentazioa, sorkuntza eta egoera errealak.
- Ikaslea bere ikaskuntza prozesuan protagonista izan bakoitzaren erritmoak errespetatuz.
- Euskararen kantitatea eta kalitatea hobetu.
- Kompetentzietan oinarritutako aprendizai gaizatu.
- Komunitate osoa gure proiektua gaizatu ahal izateko formatu.
- Ikastolako hezkuntza proiektua definitu eta etapa guztietako kohesioa lortu.
- Instalakuntzak metodologiara egokitu.



Proiektu eta metodologiak:

- **Proiektu kurrikularra**

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua antolatzen du era koherentean eta berau osatzen duten helburu, gaitasun, metodo eta ebaluazioen multzoa da. Oinarrizko kompetentzietan oinarritzen da, hau da, ikaslea, norberak errealizatzeko eta garatzeko, herritar aktibo izateko, gizarte partaide izateko eta lanean txertatzeko.

- **HPI (Hobekuntza pedagogiko iraunkorra)**

Ikastolen elkartearen bidez eta Bartzelonako Escalae institutuaren gidaritzapean 4 urtez luzatuko den aholkularitza prozesua da. Hobekuntza prozesu honek, ikastola bere osotasunean hartzen du, aldaketa zehatzak markatuko ditu eta iraunkorra izango da.

Aholkularitza prozesu honen helburua, Ikastola ereduaren Hezkuntza markoan definitutako ezaugarrien baitan, ikasleen ikaskuntzetan hobekuntzak eragiteko, irakaskuntza jardunetan hobekuntzen inplementazioa errazten duten prozesuak garatzen laguntzea da. Horretarako Ikasle guztien ikaskuntza prozesua hobetuko duen irakasleen praktika erreflexiboa bultzatu eta bideratu da.

- ***Antolaketa neurologikorako programa HHn***

Egunero ordu erdiko ariketa motorikoak egitean datza (katuka, arrastaka, brakiazioa...). Haurren garuneko bi hemisferioen arteko koordinazioa errazten du, begi-gorputz koordinazio on bat garatzen da... Guzti honek ikaskuntza prozesua errazten du.

- ***Psikomotrizitatea HHn eta LHko 1. eta 2. mailetan***

Haurren afektuzko garapena zein garapen motriza eta kognitiboa erabat lotuta daudenez, hiru maila hauetan bere gorputzaren osotasuna garatzen laguntzea da Bernard Aucouturier-en ereduari oinarritutako praktika honen helburua. Aldi berean, jolasa eta akzioa bultzatuz komunikazioa, sormena eta pentsamendu operatorioaren bilakaera bideratzea.

- ***Ikaskuntza kooperatiboa (HH, LH eta DBHn)***

Aprendizai kooperatiboa ikasleen talde lanaren erabilpen didaktikoa da. Orokorrean talde heterogeneoak dira errendimendu eta gaitasunei begira, beti ere, taldekideen parte hartze ekitatiboa eta beraien arteko interakzioa ahalik eta gehien bultzatuko duen ariketa mota landuz. Helburua, taldekide guztiek proposatutako edukiak ikastea eta gainera taldean lan egiten ikastea izango litzateke.

- ***Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntza 1-2-3n ERAIKIZ proiektua***

Haurra gaitasunez beteriko pertsona dela oinarri hartuta eta munduaz ikasteko berezko gaitasuna duela sinetsita, pertsonon ongizatea bermatzea du helburu ERAIKIZ proiektuak.

Hurrek berezko gaitasuna badituzte ere, haien garapena, osasuntsua izango da edo ez, eskaintzen zaien testuinguruaren ezaugarrien arabera.

Eraikiz proiektuan, haurra da bere ikasketen protagonista, beren gaitasunak garatuko dituen eta bide horretan, nola ez, helduon laguntza jasoko duena. Izan ere, bere gogo, plazer, interes eta beharrezko abiatuta dauden jardura eta ekintza autonomoak dira haurren ikaskuntza eta garapen psikomotor, afektibo, sozial zein kognitiborako oinarri.

Haurrak airea bezain beste behar du jolasa, bizitzen ari den mundua ulertu eta kudeatzen ikasteko. Gure iritziz, jolasaren eta esperimentazioaren bitartez norberaren erritmoak errespetatzea lortzen da, autonomia, talde lana eta harremanak aberasten dira, baina eta, guztiaren gainetik, haurrak bizitzan beharrezkoa izango duen konfiantza garatuko da.

- ***EKI proiektua (LH 4-5-6 / DBH)***

Egungo gizartearen beharrei arrakastaz erantzungo dieten ikasleak bermatzea du xede proiektuak, eta horretarako, kompetentzietan oinarritutako ikaskuntzan oinarritzen da. Kompetentziak egoera errealei aurre eginez garatzen dituzte eta beraz, bizitzako edozein esparrutara transferitu ahalko dituzte gaitasun hauek.

Proiektu berritzaile hau bere bertsio digitalean lantzen da DBHn. Egungo gizartearen beharrezkoa da gure ikasleak kompetentzia digitalean ere trebatuak izatea, eta lan egiteko modu horrek kompetentzia horren garatzea bermatzen digu.

- ***Hizkuntza Proiektua. Eleanitz proiektua (HH, LH eta DBHn)***

Hizkuntza Proiektua, euskara hizkuntza proiektuaren muina izanik, ikastolan irakasten diren beste hizkuntzen arteko garapena eta erabilera koordinatu, adostu eta zehazten dituen tresna da. Hori garatzeko metodologia Eleanitz proiektuan oinarritzen da, hau da, ikuspegi komunikatibo batetik lau hizkuntza irakasteko proposamena egiten da; euskara irakaskuntzako hizkuntza nagusia da, gaztelania Lehen Hezkuntzako lehen mailatik aurrera irakasten da, ingelesaren irakaskuntza goiztiarra da (4 urtetatik aurrera) eta frantsesa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren hasieran hasten da.

- ***KiVa: bullying edo eskola-jazarpenaren aurkako programa (LH-DBH)***

Ikastolen elkarteak Finlandiatik jaso duen programa honek eskola-jazarpenari aurre hartzea eta murriztea du helburu. Uzturpe ikastolan garbi dugu jazarpenari aurre egiteko guztion lana ezinbestekoa dela, beraz Bizikidetzan

batzordeak KiVa programak komunitate osorako eskaintzen dituen baliabideak jarri ditu martxan: irakasle eta langileen formakuntza, LH eta DBHko ikasleekin tutoretzatan jazarpenari aurre egiteko prebentzio unitateen lanketa eta gurasoek etxean ere lanketa egin dezaten gidaliburua. Prebentzio lana egiteaz gain, KiVa taldeak gerta daitezkeen jazarpen egoerak aztertuko ditu, behar denetan esku hartuz.

Zerbitzuak:

Familien beharretara egokitzen gara ondorengo zerbitzuak eskainiz.

- **Guraso eskola:** Ikastolako komunitate osoa berrikuntza pedagogiko prozesuan batera joateko, zalantzen aurrean laguntzeko, konfiantza emateko... Ikastola bera trinkotzeko, dinamizatzeko, biziberritzeko bitarteko oso egokia da. Honetarako ikasturtean zehar hainbat hitzaldi eta tailer antolatzen dira.
- **Familia elkarguneak:** Familion egonezin edo eta beldurrak entzunez eta ulertuz, umeen garapenaz ditugun bizipenak, sententzioak, usteak, kezak, beldurrak... partekatzea du helburu. Gurasoen ongizateari begirako estrategiak garatzeko bide izan daitezkeen saioak dira. Bakoitzaren bizipenei tartea eskainiz, transmisioan baino, elkarrizketan eta harremanetan ardaztutako saioak dira.
- **Kirol jarduerak eta eskolaz kanpoko ekintzak:** Eskola kirola, pilota, atletismoa, gimnasia erritmikoa, ping-pong, xake, antzerkia, perkusioa, eskulanak, robotika, ingelesa eta musika.
- **Ludotekako zerbitzu bereziak:** irailean, gabonetan, pazko astean eta ekainean.
- **Jangela:** inguruko produktuekin ikastolan bertan prestatua.
- **Autobusa:** Ibaratik eta inguruko herrietatik.
- **Goiz txokoa:** 7:30etatik aurrera.

6. FUNTZIONAMENDU ORGANOAK

Uzturpe Ikastola Gurasoen Irakaskuntza Kooperatiba Elkarteko gestio eta funtzionamendu organoak demokratikoki aukeratzeko dira. Kooperatibak ondorengo organo sozialak izango ditu:

BATZAR OROKORRA

Batzar Orokorra, bazkideek osatuta, borondate soziala adierazten duen organo gorena da, indarreko legeriak egozten dizkieten gai guztietan.

Batzar Orokorraren erabakiek bazkide guztiak behartzen dituzte. Organo honen kompetentziek arlo pedagogikoa, ekonomikoa eta administratiboa hartzen dituzte. Arlo pedagogikoari dagokionez, ikasturteko plangintzari oniritzia ematen zaio eta ekonomikoan, berriz, aurreko ikasturteko emaitzak azaldu eta urte horretako aurrekontua onartzen ditu.

Batzar Orokorra, ohikoa edo apartekoa izan daitekeena, Errektore Kontseiluak deituko du. Ohiko Batzar Orokorra urtean behin deitzen da. Aparteko Batzar Orokorra edozein momentutan bil daiteke Errektore Kontseiluaren ekimenez edota boto guztien %20 gutxienez biltzen duten bazkideen eskariz. Batzar Orokorraren buru Errektore Kontseiluko lehendakaria izango da.

ERREKTORE KONTSEILUA

Errektore Kontseilua Kooperatiba gobernatu, kudeatu eta ordezkatzeko organoa da; Batzar Orokorra funtzionamendu organoetara hurbiltzen duena. Batzar Orokorraren menpe dago zuzenean. Zuzendariak aurkeztutako eta ikastolaren eguneroko jarduerari dagozkion beste hainbat gairi buruz erabakiak hartzen ditu.

Bere arduradun eta erantzule nagusia Lehendakaria da, aldi berean, Ikastolako lehendakari eta arduradun nagusia delarik. Honekin batera lehendakariorde, idazkari eta diruzain karguak daude. Hauek guztiak, Errektore Kontseiluak hiru urtetarako aukeratzeko dira.

Guraso eta irakaslez osatua egongo da. 15 kide titularrek osatuko dute (2 ordezkokoak direlarik); Errektore Kontseiluko kideak, titularrak eta ordezkokoak, bazkideen artean aukeratu dira. 3 urtetarako aukeratuak dira, urtero Errektore Kontseiluaren herena aldatzen direlarik. 15 kide horietatik, 12 bazkide erabiltzaileak (gurasoak) eta 3 bazkide laguntzaileak (irakasleak) osatuko dute.

Bilerak hilean behin edota, gai puntualak aztertzeko, egoerak eskatzen duenetan egiten dira. Bileretarako deia lehendakariak edo zuzendaritzak egingo du.

Errektore Kontseiluko jarduera ondorengo 10 batzordeetan banatzen da: auzo lanak, ikasleekin harremanak, euskara, bizikidetzak, udalarekin harremanak, Hauspoa, kirola, mendi taldea, ekonomia eta ingurumena. Batzorde hauek bere kaxa lan egiten dute eta dituzten proposamenak Errektore kontseiluan aztertu eta erabakiak hartzen dira.

GELETAKO GURASO ORDEZKARIAK

Geletako gurasoz eta zuzendaritza taldeko kide batez osaturiko taldea da. Gurasoen partehartzea sustatzea, bere iritzia kontutan hartzea eta ikastolaren inguruko ezagutza areagotzea da talde honen helburua.

Guraso ordezkariak, 2 urtetarako dira aukeratuak. Urtero taldearen erdia berritzen da. Parekidetasuna zainduz, bazkideen artean aukeratu dira, Haur hezkuntzan 2 eta 4 urteko haurren geletako guraso ordezkariak eta Lehen Hezkuntzan 1., 3. eta 5. mailetakoak eta DBH 1. eta 3. mailetakoak.

Bilerak hilean behin edota, gai puntualak aztertzeko, egoerak eskatzen duenetan egiten dira.

ZUZENDARITZA TALDEA

Ikastolaren funtzionamendua, gestioa eta arlo pedagogikoaren erantzukizuna duen organo kolektiboa da. Pedagogiaren ekintza bidea eta erabili behar den metodologiaren nondik norakoa zehazten ditu.

Ikastolak eskaintzen dituen beste zerbitzuak kudeatzen ditu: goiz txokoa, ludoteka, guraso eskola, jangela, garraioa eta eskolaz kanpoko ekintzak.

Ikasle, familia eta langileen asetzeari izango ditu helburuak.

Zuzendariak, hiru koordinatzaileek (HH, LH, DBH) eta orientatzaileak osatzen dute talde hau.

KLAUSTROA

Ikastolako irakasle guztiak ordezkariak bakarrean biltzen dituen organo kolegiatua da. Bertan pedagogia eta antolakuntza gaiak jorratzen dira.